

Txotx garaia zabalik!!

Eguzkitza

SAGARDOTEGIA



Usabal Auzoa
© 943 67 26 13
TOLOSA




Urdaira, Petritegi eta Lizeaga sagardotegietako ordezkariak, euren dominekin. GARA

Petritegik irabazi du Euskal Herriko V. Sagardo Txapelketa

J.S. | DONOSTIA

Astigarragako Petritegik irabazi zuen joan zen irailaren 28an Ergobian jokaturako Euskal Herriko V. Sagardo Txapelketa Herrikoa. Bigarren postua Astigarragako Lizeaga sagardotegiarentzat izan zen eta hirugarrena, Usurbilgo Urdaira sagardotegiarentzat.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarrekin antolatutako txapelketa ibiltariak bosgarren edizioa bete du 2019an eta bertan 43 sagardotegik hartu dute parte. Finalurrekoak Adunan, Lizartzan, Orion eta Zornotzan jokatu ziren eta final handia Ergobiko plazan egin zen, epaimahai herrikoa 325 lagunek osatu zutelarik.

Final honetan 12 sagardo dastatu ziren: finalurreko bakoitzean puntuazio handiena lortu zuten bi sagardotegietakoak (zortzi guztira), eta batez beste-

ko puntuazioaren arabera aukuratutako beste lau.

Lehen hiru sailkatuek Hazi Fundazioaren eskutik Eusko Label eta kalitatezko zigilua duten produktuen sorta bana jaso zuten, Sagardoa Routen oroigarria

eta Astigarragako Udalaren oroigarria.

Baina epaileentzat ere izan zen saririk. Izan ere, irabazlearen puntuazioa gehien hurbildu ziren mahaikideek txapelduaren sagardoa jaso zuten.

GIPUZKOAKO TXAPELA, TOLOSAKO ISASTEGIRENTZAT

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero antolatzen duen txapelketako azken irabazlea Tolosako Isastegi sagardotegia izan da. Sari banaketa ekainean egin zen Foru Aldundian.

Lehiaketaren 2019ko edizioak sailkapenean berrikuntza bat izan du. Orain arte, aurkeztutako sagardotegi guztien artetik sei sailkatzen ziren azken faserako, baina XVIII. edizio honetan, aurkeztutako sagardoetxe guztietatik, puntuazioaren arabera hiru kategoria ezarri ziren lehen fase batean: urrea 72 puntutik gora, zilarra 65 eta 72 puntu artean, eta brontzea 60 eta 65 artean. 60 puntuko minimoa lortu ez zuten sagardotegiak dominarik gabe geratu ziren.

Horiek horrela, zortzi sagardoetxe lortu zuten edizio honetan 60 puntutik gora: brontzeko kalifikazioa lortu zuen Petritegik, zilarrezkoa Alorreneak, eta urrezkoa Aburuzak, Altzuetak, Isastegik, Oihartek, Tximistak eta Zelaia. Txapelduetan txapelkun, ordea, Isastegi gailendu zen.

Saritu guztiek euren botiletan zigilu bereizgarri bat eramateko aukera izango dute datorren urte osoan, urrezko, zilarrezko eta brontzeko sailkapena erakutsiko duena.



Isastegiko ordezkaria, sariak jasotzen. GARA



OYARBIDE

SAGARDOAK

Astelehenetik larunbatera afariak eta larunbata eta igandetan bazkariak. Igande gauak itxita.

Oiarbide Baserria.
ASTIGARRAGA · t. 943 55 31 99
oyarbidesagardotegia.com




GURUTZETA

t. 943 55 22 42

Oiarbide Bidea.
Astigarraga
www.gurutzeta.com




URBITARTE

SAGARDOTEGIA

Lanegunetan: 20:00-22:30
Larunbata eta Jaiegunetan:
13:30-15:00 eta 20:00-22:30
Asteazkenetan itxita

943 18 01 19
Ergoiena Auzoa, ATAUN
www.urbitartesagardotegia.com




goya.

HARAGIAREN GUNEA

Pol. Ind. Benta-Aldea, 4. 20270 ANOETA (Gipuzkoa)
T. 943 655 224 | www.carnicagoya.com

CONCURSO NACIONAL DE PARRILLA
2017 MEJOR CARNE
2018